Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Mari Carmen Lasa Odriozola

Beasain, Gipuzkoa (1929-2018)



Aurkibidea

Biografia



Garin auzoko Garin-Arretxe baserrian jaioa. Elkarrizketa egin zitzaionean kalean bizi zen, baina baserriko bizimodua oso ongi ezagutzen zuen, eta azalpen ugari eman zituen hainbat gairen gainean (lanak, erromeriak, ohitura zaharrak, gaztetako ibilerak, etab.). Beasaingo euskara jasotzeko bekarako egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BEA-020

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-09-27
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Beasainera gaztelera ikastera

- **Erref**: BEA-020/002
- **Iraupena**: 0:05:13. **Hasi**: 00:00:37. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Ulertu arren, gazteleraz ez ziren ondo moldatzen gurasoak, ondorioz, seme-alabak Beasaingo fraide edo mojen eskolara bidaltzea erabaki zuten gaztelera ikas zezaten. Gaizki egiteko beldurrez, gehienetan euskaraz erantzuten zuela kontatzen du. Mojekin gertatutako hainbat anekdota dakartza gogora.

2. Apaizak euskaraz ematen zizkien eskolak

- **Erref**: BEA-020/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Garingo eskola txikian eman zituen lehen ikasturteak. Apaiza zen bertako irakasle lanak egiten zituena. Euskaraz ematen zizkien behar zituzten azalpen guztiak.

3. Gurdiarekin jolasean

- **Erref**: BEA-020/005
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:08:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak. Gurdiarekin jolas nola egiten zuten azaltzen du. Sokasaltoan aritzeko sokak aitari kentzen zizkioten baserritik.

4. Zumarragara josten ikastera

- **Erref**: BEA-020/010
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:12:15. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Baserriko lanetan baino, etxeko zereginetan laguntzen zioten amari. Hamasei urterekin Zumarragara joan zen josten ikastera. Asteburuetan etortzen zen etxera. Baserritik Zumarragara eramaten zituen jakiak esker onez hartzen zituzten.

5. Erromeriara joan aurretik, bezperak entzun behar

- **Erref**: BEA-020/012
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:17:26. **Bukatu**: 00:19:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Erromerietara joatea oso gustuko zuen. Joan aurretik bezperak entzutera behartzen zituen amak. Aitonak jotzen zuen organoa elizan

6. Ume-umetatik bertsozaletasun handia

- **Erref**: BEA-020/014
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:20:49. **Bukatu**: 00:23:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Gorrina izan zuen umetan. Praktikanteak ohean egoteko agindu zion baina, bakarrik egon nahi ez zuenez, bertsoak kantatzeko eskatzen zion aitari. Ume-umetatik du abertzaletasun handia. Pello Errotaren kopla labur bat kantatzen du

7. Lixiba nola egiten zen

- **Erref**: BEA-020/015
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Baserriko emakumearen bizimodua oso gogorra zen. Lixibari buruzko azalpenak ematen ditu. Arropa zuriak garbitzen ziren lehenengo eta, hauek utzitako xaboi-urarekin, kolorezko arropak garbitzen ziren. Arropa jotzeko lau harri zeuden albergan.

8. Kanpai-hots desberdinak I

- **Erref**: BEA-020/016
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:30:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Elizako kanpaiak jotzeaz arduratzen zen aita. Makina bat aldiz jo zituen Mari Carmenek ere. Kanpai-hots desberdinak eta hauen esanahiari buruz mintzatzen da.

9. Kanpai-hots desberdinak II

- **Erref**: BEA-020/017
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:30:18. **Bukatu**: 00:31:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Aste Santuko kanpai-hotsa desberdina zen. Aingeru edo hil-kanpaiak.

10. Gizonezkoak emakumezkoak baino libreago ibiltzen ziren

- **Erref**: BEA-020/020
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:34:16. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Mutilak libreago aritzen zirela kontatzen du. Emakumezkoak hobeto zaindu behar zirela esaten zieten etxean ere. Dantza lotuan egiteagatik kongregaziotik botatzen zituztela kontatzen du

11. Hiru litro esne ematen zituen behiaren kontakizuna

- **Erref**: BEA-020/024
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:37:44. **Bukatu**: 00:39:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Egunean hiru litro esne ematen zituela esanez saldu zuen baserritar batek behia. Gezurrarekin damututa, apaizarengana konfesatzera joan zen baina espero ez zuen erantzuna jaso zuen.

12. Txahalarekin geratu zen abokatuaren kontakizuna

- **Erref**: BEA-020/025
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:39:16. **Bukatu**: 00:40:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Txahala egiteko zegoen behia saldu zuen baserritar batek. Eroslearen etxean egin zuen txahala baina erreklamatu egiten zion saltzaileak. Abokatuarengana jo zuten baina, arazoa konpondu baino, txahalarekin geratu zen. Abokatu bati buruzko kontakizun labur bat.

13. Euskaraz jarduteagatik kartzelara

- **Erref**: BEA-020/027
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:41:46. **Bukatu**: 00:43:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Senarrari 10 urte inguru zituela gertatu zitzaiona kontatzen du. Gerra garaian, euskaraz hitz egiteagatik kartzelara eraman zuten guardia zibilek.

14. Laborea zen gustukoen zuen ikasgaia

- **Erref**: BEA-020/030
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:47:02. **Bukatu**: 00:49:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Karmeliten ikastetxeko irakasleen izenak gogoan ditu. Ikasgaien artean, laborea zuen gogokoen. Egindako lan desberdinak aipatzen ditu.

15. Gerraosteko miseria garaia

- **Erref**: BEA-020/033
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:50:22. **Bukatu**: 00:52:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean miseria handia zegoen. Baserriko produktuen zati bat udaletxean entregatu behar izaten zutela kontatzen du. Baserriz baserri, erregistroak egiten ibiltzen zirenak ere bazeuden baina, bizilagunen artean konplizitate handia zegoenez, abisua pasatzen zioten elkarri. Beldurra zen nagusi.

16. Garinen igaro zuten gerra

- **Erref**: BEA-020/034
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:52:09. **Bukatu**: 00:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Gerra Zibilak iraun zuen bitartean Garinen egon ziren. Ez zuten inora alde egin. Mandubitik botatzen zituzten kanoikadak gogoan ditu.

17. "Txerri erregaloa" bizilagunei

- **Erref**: BEA-020/036
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:53:59. **Bukatu**: 00:56:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Txerria hil eta berehala, odola eta tripak ateratzen zitzaizkion. Hurrengo egunean, hortzen ipintzen zen. Odolkiak bizilagunen artean banatzeko ohitura handia zegoen. "Txerri erregaloa" esaten zitzaion honi. Pernando Amezketarraren pasarte bat dakar gogora.

18. Gaztainak

- **Erref**: BEA-020/039
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:58:44. **Bukatu**: 01:01:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Artoa zuritzen edo gaztainak apartatzen jarduten zuten iluntzean. "Errekarderari", jakiak batetik bestera salerosketarako eramaten zituen pertsonari, saltzen zizkioten gaztainak. Anegaka saltzen ziren gaztainak. Gaztaina "txildokak", eskasenak, abereak gizentzeko erabiltzen ziren.

19. Gauez txerria zaintzen

- **Erref**: BEA-020/040
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:01:31. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txerriak txerrikumeak azpian harrapa ez zitzan, gauez zaindu egin behar izaten ziren. Anai-arrebekin txandak eginez konpontzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com